

**Ebazpena, 2021eko otsailaren 18koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena; horren bidez agintzen da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2021. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa argitaratzeko. Kontseilu Errektoreak 2021eko otsailaren 16an hartutako erabakiaren bidez onartu zen plan hori.**

Dirulaguntzen esparruan Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen lege-araubidearen arabera, dirulaguntzak ematea proposatzen duten administrazio publikoek edo entitateek aldeztatik dirulaguntzen plan estrategiko bat izan behar dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/15 Zirkularraren bidez zehaztu zituen plana prestatzeko oinarritzko jarraibideak.

Ondorio horietarako, eta ikuspegi orokorra emateko, eraginkortasun- eta efizientzia-mailak handitzeko eta publikitate eta gardentasuna bultzatzeko, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2021eko Dirulaguntzen Plan Estrategiko honek otsailaren 11ko 1/2021 Legean jasotako aurreikuspenak biltzen ditu (1/2021 Legea, otsailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak. EHAA, otsailaren 17koa, 35. zenbakia).

Ildo horretan, baina kontuan hartuz 5/2008 Legeak (5/2008 Legea, ekainaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu era arautzen duena) Agentziaren Kontseilu Errektoreari ematen dizkion ahalmenak, urte honetako otsailaren 16an erabaki du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2021. urteko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea.

Azaldutako guztia dela bide, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2021. urteko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa argitaratu behar da.

Hori dela bide, honako hau

## **EBAZTEN DUT**

Lehena.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2021. urteko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa argitaratu dadin agintzea, egoki diren bitarteko ofizialak erabiliz eta, nolana ere, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webgunean sartuz ([www.elankidetz.euskadi.eus](http://www.elankidetz.euskadi.eus)). Plan hori Kontseilu Errektoreak 2021eko otsailaren 16an hartutako erabakiaren bidez onartu zen.

Sin.: Paul Ortega Etcheverry

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria